

Kutxabank RF Horizonte 20, Fondo de Inversión

Urteko kontuak eta kudeaketa-txostena,
2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko
ekitaldikoak, auditoria independentearen
txostenarekin batera

URTEKO KONTUEN AUDITORIA-TXOSTENA, AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EMANA

Kutxabank RF Horizonte 20, Fondo de Inversión Inbertsio Funtsaren partaideei, Kutxabank Gestión Administrazio Kontseiluaren, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Sozietatea SAren, enkarguz.
(Pertsona bakarreko sozietatea) (sozietate kudeatzailea):

Iritzia

Kutxabank RF Horizonte 20, Fondo de Inversión funtsaren (Funtsa) urteko kontuak auditatu ditugu. Kontu horietan sartzen dira 2023ko abenduaren 31ko balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoria.

Gure ustez, erantsitako urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, Funtsaren ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela adierazten dute 2023ko abenduaren 31n, baita data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion emaitzen eta diru-fluxuen irudi fidela ere, aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorritz (memoriaren 2. oharrean identifikatzen da), eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipioekin eta -irizpideekin bat etorritz.

Iritziaren oinarria

Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren jardura erregulatzen duen araudiarekin bat etorritz egin dugu gure auditoretza. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatuko ditugu gure txosteneko atal honetan: *Kontu-ikuskariaren erantzukizunak urteko kontuen auditoretzari dagokionez.*

Funtsarekiko independenteak gara etika-eskakizunen arabera, independentzia-eskakizunak barne, Espainiako urteko kontuen gure auditoretzari aplikatzekoak direnak, kontu-auditoretzaren jardura arautzen duen araudiak eskatzen duenaren arabera. Ildo horretan, ez dugu kontu-auditoretzaz bestelako zerbitzurik eman, eta ez da gertatu, aipatutako araudi arautzailean ezarritakoaren arabera, izan beharreko independentziari eragin dion egoerarik edo inguruabarrik, hura arriskuan jartzeko modukorik.

Gure ustez lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du gure iritzia emateko.

Auditoretzaren **alderdirik** garrantzitsuenak

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo aldiko urteko kontuen gure auditoretzan akats material garrantzitsuenen arriskutzat hartu direnak. Arrisku horiek urteko kontuen auditoretzaren testuinguruan landu dira, baita kontu horiei buruzko gure iritzia eratzean ere, eta ez dugu arrisku horiei buruzko iritzi bereizirik ematen.

Finantza-inbertsioen zorroaren existentzia eta balorazioa

Deskribapena

Erantsitako memoriaren 1. oharrean deskribatzen den bezala, Funtsaren xedea da publikoaren funts, ondasun edo eskubideak atzematea ondasun, eskubide, balore edo bestelako tresnetan, finantzarioak izan ala ez, kudeatzeko edo inbertitzeko, betiere inbertitzailearen errendimendua emaitza kolektiboen arabera ezartzen bada. Horregatik guztiagatik, eta zorro horrek bere ondarean duen garrantzia dela-eta, ondorioz, Funtsaren likidazio-balioan duen garrantzia kontuan hartuta, finantza-inbertsioen zorroaren existentzia eta balorazioa gure auditoretzako alderdirik garrantzitsuenak direla identifikatu dugu.

Auditoretzan aplikatutako prozedurak

Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren berri izan dugu Sozietate Kudeatzaileak erabilitako prozesuak eta irizpideak ulertuta, eta, bereziki, Funtsaren finantza-inbertsioen zorroa osatzen duten tresnen existentziari eta balorazioari dagokienez.

Gure auditoretza-prozedurek barne hartu dute berrespenak eskatzea, besteak beste, erakunde gordailuzainari, sozietate kudeatzaileei edo kontrako alderdiei finantza-tresnaren izaeraren arabera, finantza-inbertsioen zorroa osatzen duten posizioak dauden egiaztatzeke, baita Funtsaren erregistroekin bat datozen egiaztatzeke ere.

Horrez gain, funtsezko prozedurak egin ditugu, oinarri selektiboan, finantza-inbertsioen zorroaren balorazio-alderdirik garrantzitsuenari erantzuteke, eta barnean hartuta, bereziki, prezioak kanpo-iturriarekin alderatzea edo **2023**ko abenduaren 31n zeuden finantza-inbertsioen zorroaren posizioetarako merkatu-datu behagarriak erabiltzea.

Finantza-inbertsioen zorroaren aktiboei dagokien informazioaren banakapena erantsitako urteko kontuen memoriaren 4. oharrean dago.

Bestelako informazioa: Kudeaketa-txostena

Beste informazioak 2023ko ekitaldiko kudeaketa-txostena baino ez du hartzen; txosten hori egitea Funtsaren Sozietate Kudeatzaileko administratzaileen erantzukizuna da, eta ez da urteko kontuen parte.

Urteko kontuei buruz dugun auditoretza-iritziak ez du kudeaketa-txostena estaltzen. Kudeaketa-txostenari buruz dugun erantzukizuna, kontu-auditoretzaren jarduera arautzen duen araudiak eskatzen duenaren arabera, kudeaketa-txostena urteko kontuekin bat datorren ebaluatzean eta informatzean datza, aipatutako kontuen auditoretza egitean Funtsetik lortutako ezagutzatik abiatuta, baita kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena aplikatzekoa den araudiarekin bat datozen ebaluatzean eta informatzean ere. Egindako lanean oinarrituta, akats materialak daudela ondorioztatzen badugu, horren berri ematera behartuta gaude.

Egindako lana oinarri hartuta, aurreko paragrafoan deskribatutakoaren arabera, kudeaketa-txostenak duen informazioa bat dator 2023ko ekitaldiko urteko kontuekin, eta haren edukia eta aurkezpena bat datoz aplikatu beharreko araudiarekin.

Funtsaren Sozietate Kudeatzailearen administratzaileen erantzukizuna, urteko kontuei dagokienez

Funtsaren Sozietate Kudeatzailearen administratzaileak arduratzen dira erantsitako urteko kontuak formulatzeaz, ondarearen, finantza-egoeraren eta Funtsaren emaitzen irudi fidela adieraziz, Espainiako Funtsari aplikatu beharreko finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorriz, baita iruzurrik edo akatsik gabe urteko kontuak prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolarekin ere.

Urteko kontuak prestatzerakoan, Funtsa Kudeatzen duen Sozietateko administratzaileak arduratzen dira Funtsak funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko duen gaitasuna baloratzeaz, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak azalduz, eta funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz, salbu eta Funtsaren Sozietate Kudeatzailearen administratzaileek Funtsa likidatzeko edo eragiketak eteteko asmoa badute, edo beste aukera errealistarik ez badago.

Auditorearen erantzukizunak urteko kontuen auditoretzari dagokionez

Gure helburua da urteko kontuak, oro har, oker materialik gabe daudela ziurtatzea, iruzurraren edo akatsen ondorioz, eta gure iritzia jasotzen duen auditoretza-txostena egitea.

Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila handia da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren jarduera arautzen duen araudiarekin bat etorritz egindako auditoretza batek beti atzemango duenik akats material bat, halakorik dagoenean. Akatsak iruzurraren edo errorearen ondorio izan daitezke, eta materialtzat hartzen dira, baldin eta, banaka edo modu agregatuan, erabiltzaileek urteko kontuetan oinarrituta hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragina izatea era arrazoituan aurreikus badaiteke.

Auditoretza-txosten honen I. eranskinean, urteko kontuen auditoretzarekin lotutako gure erantzukizunen deskribapen zehatzagoa jasotzen da. Deskribapen hori aipatutako I. eranskinean dago, eta gure auditoretza-txostenaren parte da.

DELOITTE,
S.L.

Hemen inskribatua: R.O.A.C.
S0692 zk.

Pablo Mújica

Hemen inskribatua: R.O.A.C. 18694 zk
2024ko martxoaren 26a

Gure auditoretza-txostenaren I. eranskina

Gure auditoretza-txostenean sartutakoaz gain, I. eranskin honetan urteko kontuen auditoretzari buruz ditugun erantzukizunak sartzen ditugu.

Auditorearen erantzukizunak urteko kontuen auditoretzari dagokionez

Espanian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren jarduera arautzen duen araudiaren arabeko auditoretza baten parte gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionalaren jarrera mantentzen dugu auditoretza osoan zehar. Halaber:

- Urteko kontuetan oker materialaren arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, iruzurraren edo akatsen ondorioz, arrisku horiei erantzuteko auditoria-prozedurak diseinatu eta aplikatzen ditugu, eta gure iritzirako oinarri bat emateko nahikoa eta egokia den auditoria-ebidentzia lortzen dugu. Iruzurraren ondoriozko akats material bat ez detektatzeko arriskua handiagoa da akatsen ondoriozko akats material baten kasuan baino; izan ere, iruzurrak kolusioa, faltsifikazioa, nahita egindako omisioak, nahita egindako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea ekar dezake.
- Auditoretzarako barne-kontrolaren ezagutza garrantzitsua lortzen dugu, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko, eta ez Funtsaren Sozietate Kudeatzailearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren, kontabilitate-zenbatespenen arrazoizkotasuna eta Funtsaren Sozietate Kudeatzailearen administratzaileek emandako informazioa ebaluatuko ditugu.
- Funtsaren Sozietate Kudeatzaileko administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa era egokian erabiltzen duten ondorioztatzen dugu, eta, lortutako auditoretzaren ebidentzian oinarrituta, ondorioztatzen dugu Funtsak funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko duen gaitasunari buruz zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertakariekin edo baldintzekin lotutako ziurgabetasun materialik dagoen ala ez. Ziurgabetasun materiala dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoretza-txostenean ohartarazi behar dugu urteko kontuetan emandako informazio horri buruz, edo, jakinarazte horiek egokiak ez badira, iritzi aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak orain arte gure auditoretza-txostenetik lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko egitateek edo baldintzek eragin dezakete Funtsa funtzionamenduan dagoen enpresa izateari uztea.
- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, baita jakinarazitako informazioa ere, eta ea urteko kontuek transakzioak eta azpiko gertaerak irudikatzen dituzten, irudi fidela adierazteko moduan.

Funtsaren Sozietate Kudeatzailearen administratzaileekin komunikatzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoretzaren norainokoa eta unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak eta auditoretzan zehar identifikatzen dugun barne-kontrolaren edozein hutsune esanguratsu direla-eta.

Funtsaren Sozietate Kudeatzailearen administratzaileari jakinarazi zaizkion arrisku esanguratsuen artean, egungo aldiko urteko kontuen auditoretzan esanguratsuenak izan direnak zehaztu ditugu, eta, ondorioz, horiek dira auditoretzaren funtsezko gaiak.

Arrisku horiek gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta lege- edo erregelamendu-xedapenek gaia jendaurrean azaltzea debekatzen badute.

KUTXABANK RF HORIZONTE 20, FONDO DE INVERSIÓN

2023KO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA

AKTIBOA	Euroak	ONDAREA ETA PASIBOA	Euroak
AKTIBO EZ-KORRONTEA	-	PARTAIDEEI EDO AKZIODUNEI ESLEITUTAKO ONDAREA	802.186.677,09
Ibilgetu ukiezina	-	Partaideei edo akziodunei esleitutako funts ordaingarriak	802.186.677,09
Ibilgetu materiala	-	Kapitala	-
Erabilera propioko ondasun higiezinak	-	Partaideak	791.436.601,07
Altzariak eta tresnak	-	Jaulkipen-prima	-
Aktiboak zerga geroratuarengatik	-	Erreserbak	-
AKTIBO KORRONTEA	802.696.563,55	(Akzio propioak)	-
Zordunak	383.651,36	Aurreko ekitaldietako emaitzak	-
Inbertsio finantzarioen zorroa	732.109.391,48	Bazkideen beste ekarpen batzuk	-
Barneko zorroa	593.485.069,38	Ekitaldiko emaitza	10.750.076,02
Zorraren balore adierazgarriak	593.485.069,38	(Konturako dibidendua)	-
Ondare-tresnak	-	Doikuntzak erabilera propioko ibilgetu materialeko balore-aldaketengatik	-
Inbertsio kolektiboko erakundeak	-	Esleitutako beste ondarea	-
Gordailuak KEetan	-	PASIBO EZ-KORRONTEA	-
Deribatuak	-	Epe luzerako hornidurak	-
Bestelakoak	-	Epe luzerako zorrak	-
Kanpoko zorroa	125.212.958,88	Pasiboak zerga geroratuarengatik	-
Zorraren balore adierazgarriak	125.212.958,88	PASIBO KORRONTEA	509.886,46
Ondare-tresnak	-	Epe laburrerako hornidurak	-
Inbertsio kolektiboko erakundeak	-	Epe laburrerako zorrak	-
Gordailuak KEetan	-	Hartzekodunak	509.886,46
Deribatuak	-	Pasibo finantzarioak	-
Bestelakoak	-	Deribatuak	-
Inbertsio-zorroaren interesak	13.411.363,22	Periodifikatzeak	-
Inbertsio berankorrek, zalantzak edo auzitan daudenak	-		
Periodifikatzeak	-		
Diruzaintza	70.203.520,71		
AKTIBOA, GUZTIRA	802.696.563,55	ONDAREA ETA PASIBOA, GUZTIRA	802.696.563,55
OROIPEN-KONTUAK			
KONPROMISO-KONTUAK	59.075.891,21		
Konpromisoak deribatuen eragiketa luzeengatik	59.075.891,21		
Konpromisoak deribatuen eragiketa laburrengatik	-		
BESTELAKO OROIPEN-KONTUAK	743.200.000,00		
IKEEK maileguan lagatako baloreak	-		
IKEEK garantia gisa emandako baloreak	-		
IKEEK garantia gisa jasotako baloreak	-		
Harpidetu gabeko eta zirkulazioan ez dagoen kapital nominala (SICAV)	-		
Konpentsatu beharreko galera fiskalak	-		
Bestelakoak	743.200.000,00		
BESTELAKO OROIPEN-KONTUAK, GUZTIRA	802.275.891,21		

Honekin batera doan Memorian deskribatutako 1etik 9ra bitarteko oharrak balantze honen parte dira.

KUTXABANK RF HORIZONTE 20, FONDO DE INVERSIÓN

GALDU-IRABAZIEN KONTUAK,
2023KO ABENDUAREN 31N
AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIKOAK

	Euroak
Deskontu-komisioak harpidetzengatik eta/edo errenboltoengatik	-
IKEEi ostera lagatako komisioak	-
Langileen gastuak	-
Beste ustiapen-gastu batzuk	(2.567.672,98)
Kudeaketa komisioa	(2.365.767,73)
Komisio gordailuzaina	(168.469,41)
Diru-sarrera/gastua konpartimentu konpentsazioagatik	-
Bestelakoak	(33.435,84)
Ibilgetu materialaren amortizazioa	-
Horniduren soberakinak	-
Narriadura eta emaitzak ibilgetuaren besterentzeengatik	-
USTIAPEN-EMAITZA	(2.567.672,98)
Diru-sarrera finantzarioak	17.236.558,76
Gastu finantzarioak	-
Arrazoizko balioaren aldakuntza tresna finantzarioetan	(3.810.472,72)
Barneko zorroaren eragiketengatik	109.825,38
Kanpoko zorroaren eragiketengatik	256.482,55
Deribatuekin egindako eragiketengatik	(4.176.780,65)
Bestelakoak	-
Kanbio-diferentziak	-
Narriadura eta emaitzak tresna finantzarioen besterentzeengatik	249,59
Narriadurak	-
Emaitzak barneko zorroaren eragiketengatik	249,59
Emaitzak kanpoko zorroaren eragiketengatik	-
Emaitzak deribatuekin egindako eragiketengatik	-
Bestelakoak	-
EMAITZA FINANTZARIOA	13.426.335,63
ZERGA AURREKO EMAITZA	10.858.662,65
Mozkinen gaineko zerga	(108.586,63)
EKITALDIKO EMAITZA	10.750.076,02

Honekin batera doan Memorian deskribatutako 1etik 9ra bitarteko oharrak galdu-irabazien kontuaren parte dira.

KUTXABANK RF HORIZONTE 20, FONDO DE INVERSIÓN

2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orria

A) 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko kontabilizatutako diru-sarreraren eta gastuen egoera:

	Euroak
Galdu-irabazien kontuaren emaitza	10.750.076,02
Partaide edo akziodunei esleitutako ondarean zuzenean egotzitako diru-sarrera eta gastuak, guztira	-
Transferentziak, guztira, galdu-irabazien kontura	-
Kontabilizatutako diru-sarrera eta gastuak, guztira	10.750.076,02

B) 2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, guztira:

	Euroak											
	Kapitala	Partaideak	Igorpen-primak	Erreserbak	(Akzio propioak)	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Beste batzuk beste ekarpen batzuk	Ekitaldiko emaitza	(Konturako dibidendua)	Doikuntzak erabilera propioko ibilgetu materialeko balore-aldaketengatik	Esleitutako beste ondarea	Guztira
Aitortutako diru-sarrera eta gastuak, guztira	-	-	-	-	-	-	-	10.750.076,02	-	-	-	10.750.076,02
Eragiketarako partaideekin	-	803.373.013,82	-	-	-	-	-	-	-	-	-	803.373.013,82
Harpidetzak	-	(11.936.412,75)	-	-	-	-	-	-	-	-	-	(11.936.412,75)
Errenboltoak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondarearen bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Gehikuntza fusioagatik	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
2023ko abenduaren 31ko saldoak	-	791.436.601,07	-	-	-	-	-	10.750.076,02	-	-	-	802.186.677,09

Honekin batera doan Memorian deskribatutako 1etik 9ra bitarteko oharrak 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orriaren parte dira.

KUTXABANK RF HORIZONTE 20, FONDO DE INVERSIÓN

Memoria,
2023ko abenduaren 31n
amaitutako urteko ekitaldiari dagokiona

1. Funtsaren aipamena

Kutxabank RF Horizonte 20, Fondo de Inversión (aurrerantzean, Funtsa) 2023ko apirilaren 17an eratu zen. Funtsa arau hauetan ezarritakoaren hauen mende dago: 35/2003 Legea, azaroaren 4koa, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzkoa eta lege honen ondorengo aldaketak; 1082/2012 Errege Dekretua, uztailearen 13koa eta dekretu honen ondorengo aldaketak, zeinaren bidez arautzen den aipatutako legea; eta aplikatu beharreko gainerako araudia.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistro administratibo espezifikoan dago inskribatuta Funtsa 5.762 zenbakiarekin ez harmonizatuen kategorian, 1082/2012 Errege Dekretuko 13. artikuluan ezarritako definizioarekin bat.

Funtsaren xedea da publikoaren funts, ondasun edo eskubideak atzematea ondasun, eskubide, balore edo bestelako tresnetan, finantzarioak izan ala ez, kudeatzeko edo inbertitzeko, betiere inbertitzailearen errendimendua emaitza kolektiboen arabera ezartzen bada. Funtsaren jarduera dela eta, ez dauka ingurumeneko gasturik, aktiborik, hornidurarik edo kontingentziarik, ondarearekiko, egoera finantzarioarekiko eta ondarearen emaitzarekiko esanguratsua izan daitezkeenik. Hori dela eta, urteko kontuen memoria honetan ez da berariazko banakapenik sartu ingurumen-gaiei buruzko informazioari dagokionez; horrek ez du esan nahi, nahitaez, beren jardueraren esparruan inbertsio-erabakietan jasangarritasun-arriskuak eta -aukerak esanguratsuak izan ezin daitezkeenik (ikusi 4. oharra).

Funtsaren inbertsio-politika Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalan dagokion erregistroan dago erregistratuta eta publikoaren eskura dagoen liburuxkan dago zehaztuta.

7. oharrean adierazten denaren arabera, Funtsa kudeatzeko eta administratzeko ardurak Kutxabank Gestión S.G.I.I.C., S.A.U. erakundeak du—aurrerantzean, Sozietate Kudeatzailea—. 2023ko abenduaren 31n, erakunde hau Kutxabank Taldean integratuta dago, zeinen sozietate nagusia Kutxabank S.A. den. Hala, sozietate honek formulatzen ditu egoera finantzario kontsolidatuak. Era berean, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria erakundeak, Bilboko Kale Nagusiko 19-21 zenbakian egoitza soziala duenak, Kutxabank kontrolatzeko ahalmena dauka. Beraz, Kutxabank eta bere mendeko sozietateak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria taldearen parte dira (ikusi 4. oharra).

Balore higigarriak Cecabank, S.A. (Grupo CECA) sozietatearen, hau da, Funtsaren erakunde gordailuzainaren zaintzapean daude (ikusi 4. oharra).

Liburuxkan adierazten den bezala, Funtsak garantizatu gabeko errentagarritasun-helburua du; ondorioz, ez dauka hirugarren baten garantiarik eta, beraz, kapitala eta errentagarritasuna ez daude garantizatuta. Errentagarritasun helburu estimatu garantizatu gabea da, 2024ko maiatzaren 31ko likidazio balioa 2023ko ekainaren 30eko likidazio balioaren % 102,27 izatea. UTB garantizatu gabea % 2,47, 2023ko ekainaren 30ean egindako eta 2024ko maiatzaren 31ra arte mantendutako harpidetzentzat. UTB harpidetza dataren arabera izango da.

Garantizatu gabeko errentagarritasun-helburuaren muga-egunera arte, Funtsaren liburuxkan ezarritako iraunkortasun-aldietan harpidetzak eta/edo errenboltsoak eginez gero, Funtsaren Sozietate Kudeatzaileak partaideari aipatutako aldi bakoitzerako zehaztutako harpidetza- eta/edo errenboltso-komisioaren ehunekoa kobratuko dio.

2. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

a) Irudi fidela

Urteko kontuak Funtsaren kontabilitate-erregistroetatik lortu dira eta Funtsari aplikatu beharreko informazio finantzarioaren esparru arauemaileraren arabera formulatu dira. Esparru hori Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren 3/2008 Zirkularrean, irailaren 11koan, inbertsio kolektiboko erakundeen kontabilitateko, urteko kontuen eta informazio erreserbatuaren egoeren arauetarako buruzkoan ezartzen da, eta zirkular horrek garatu eta egokitu egiten du inbertsio kolektiboko erakundeentzat Merkataritza Kodean, Kapitaleko Sozietateen Legean, Kontabilitateko Plan Nagusian eta aplikatu beharreko araudi legal espezifikoan xedatutakoa; beraz, Funtsaren 2023ko abenduaren 31ko ondarearen eta egoera finantzarioaren eta data horretan amaitutako ekitaldian zehar sortutako funtsen eragiketen emaitzen irudi fidela erakusten dute.

Funtsaren urteko kontuak, Sozietate Kudeatzailearen administratzaileek formulatu dituztenak, aipatutako Sozietate Kudeatzailearen Administrazio Kontseiluak onetsi behar ditu (ikus 1. oharra). Halere, uste dugu urteko kontu hauek aldaketarik gabe onetsiko direla.

b) Kontabilitate-printzipioak

Urteko kontuak prestatzeko, 3. oharrean deskribatutako kontabilitate-printzipioak eta balorazio-arauak jarraitu dira. Ez dago nahitaezko kontabilitate-printzipiorik edo balorazio-araurik, urteko kontuetan eragin nabarmena izan eta prestaketan aplikatu ez denik.

Ondarearen emaitzak eta zehaztapena Funtsaren Sozietate Kudeatzailearen administratzaileek urteko kontuak egiteko jarraitutako kontabilitate-printzipio eta -politika, balorazio- eta zenbatespen-irizpideekiko sentisibleak dira.

Funtsaren urteko kontuetan, batzuetan, Sozietate Kudeatzaileko administratzaileek egindako zenbatespenak erabili dira horietan erregistratuta agertzen diren aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromiso batzuk kuantifikatzeko. Funtsean, zenbatespen horiek tresna finantzario jakin batzuen arrazoizko balioaren ebaluazioari eta aktibo jakin batzuen narriaduratik izan daitezkeen galeren ebaluazioari buruzkoak dira. Nahiz eta zenbatespen horiek 2023ko ekitaldiaren itxieran zegoen informazio onenarekin egin diren, litekeena da etorkizunean izan daitezkeen gertaera batzuek horiek aldaraztea (gorantz edo beherantz) hurrengo ekitaldietan. Hala dagokionean, etorkizuneko ikuspegiarekin egingo da, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Nolanahi ere, Funtsaren inbertsioak, beren inbertsio-politika edozein izanda ere, merkatuko fluktuazioen eta baloreetan inbertitzeak dakartzan beste arrisku batzuen mende daude (ikusi 4. oharra). Ondorioz, partaidetzaren likidazio-balioak gorantz edo beherantz fluktuatu dezake.

c) Partidak taldekatzea

Ondare garbiko balantzearen, galdu-irabazien kontuko eta egoera-orriaren partida batzuk taldekatuta daude errazago ulertzeko, nahiz eta kasu batzuetan, memoriaren oharretan informazio berezia txertatu den.

3. Erregistratzeko eta baloratzeko arauak

Funtsaren 2023ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzean, kontabilitateko printzipio, politika eta balorazio-irizpide hauek aplikatu dira:

a) Tresna finantzarioak sailkatzea, aurkezteko eta baloratzeko

i. Aktibo finantzarioak sailkatzea

Aktibo finantzarioak bereizi egin dira, balantzearen hurrengo epigrafeetan aurkezteko eta baloratzeko:

- Diruzaintza: epigrafe honetan jaso dira, hala dagokionean, likidezia-koefizientea betetzera bideratutako ageriko kontuak edo gordailuak, izan gordailuzainean, kreditu-erakunde bat denean, edo, bestela, liburuxkan izendatutako kreditu-erakundea. Halaber, hala badagokio, Funtsak bere jarduna garatzeko erakunde finantzario batean mantentzen dituen gainerako kontu korronteak edo saldoak jaso dira eta, hala badagokio, emandako garantien kontzeptu gisa Funtsak jasotako eskudirua ere jaso da.
- Inbertsio finantzarioen zorroa: hala dagokionean, epigrafe hauek osatzen dute, barneko zorroan eta kanpoko zorroan xehatzen direnak. Epigrafe hauek guztiak "Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioan kontabilizatutako aktibo finantzarioak" gisa sailkatu dira balorazio-ondorioetarako:
 - Zorraren balore adierazgarriak: jaulkitzailearentzat zor bat diren betebeharrak eta gainerako baloreak, baldin eta kontratuan ezarritako interes implizitu edo esplizitu batean oinarritutako ordainsaria sortzen badute, eta tituluetan edo kontuko oharretan egituratuta badaude, subjektu jaulkitzailea edozein dela ere.

- Ondare-tresnak: beste erakunde batzuek jaulkitako tresna finantzarioak, esaterako, akzio eta kuota partaidetuak, baldin eta jaulkitzailearentzat kapital-tresnen izaera badute.
 - Inbertsio kolektiboko erakundeak: hala dagokionean, inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetako partaidetzak jasotzen dira.
 - Kreditu-erakundeetako (EK) gordailuak: Funtsak kreditu-erakundeetan mantentzen dituen gordailuak, salbu "Diruzaintza" epigrafean jasotzen diren saldoak.
 - Deribatuak: barne hartzen ditu, besteak beste, gerokoen eta forward-en kontratuen arrazoizko balioa, erositako warrant eta opzioengatik ordaindutako primen arrazoizko balioa eta Funtsak kontratatuta dituen finantza-trukeko kontratuen arrazoizko balioa, baita, hala badagokio, Funtsak mantendutako produktu egituratuetan sartutako deribatu inplizituak ere.
 - Bestelakoak: hala dagokionean, hemen jasotzen dira 22/2014 Legean, azaroaren 12koan eta lege honen ondorengo aldaketetan araututako kapital-arriskuko erakundeetako akzioak eta partaidetzak, baita aurreko epigrafeetan jaso ez diren bestelako eragiketen zenbatekoak ere.
 - Interesak inbertsio zorroan: hala dagokionean, inbertsio finantzarioen zorroaren interes aktiboen periodifikatzea jasotzen da.
 - Inbertsio berankorrak, zalantzazkoak edo auzitan daudenak: hala dagokionean, bertan jasotzen dira, kontabilitate-sailkapenerako, inbertsio-liburuetako balioa eta periodifikatze metatuak. Horien errenboltsoa problematikoa da eta, kasu guztietan, muga-egun osotik edo partzialetik laurogeita hamar egun baino gehiago pasatu dira.
- Zordunak: hala dagokionean, garantia-kontzeptu gisa dagokien merkatuetan eragiketak egin ahal izateko gordailututako eskudirua jasotzen da, baita Funtsak hirugarrenen aurrean aurrekoez bestelako edozein kontzepturengatik dituen kreditu-eskubideen eta kontu zordunen guztizkoa ere. Zordun guztiak "Kobratzeko partidak" gisa sailkatzen dira balorazio-ondorioetarako. "Kobratzeko partidak" sailkapenaren balio narriadura, baita horren berrikuspena ere, hala dagokionean, gastu bat edo diru-sarrera bat bezala kontabilizatzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuko "Narriadura eta emaitzak tresna finantzarioen besterentzeengatik - Narriadurak" epigrafean.

ii. Pasibo finantzarioak sailkatzea

Pasibo finantzarioak bereizi egin dira, balantzearen hurrengo epigrafeetan aurkezteko eta baloratzeko:

- Epe luzerako/laburrerako zorrak: jasotako maileguengatik eta bestelako zordunketengatik hirugarrenekin egindako zorrak jasotzen ditu, baita kreditu-erakundeekiko zorrak ere. Balorazio-ondorioetarako, "Ordaindu beharreko zordunketak eta partidak" gisa sailkatzen dira.
- Deribatuak: barne hartzen ditu, besteak beste, gerokoen eta forward-en kontratuen arrazoizko balioa, saldutako warrant eta jaulkitako opzioengatik kobratutako primen arrazoizko balioa eta Funtsak kontratatuta dituen finantza-trukeko kontratuen arrazoizko balioa, baita, hala badagokio, funtsak

mantendutako produktu egituratueta sartutako deribatu implizituak ere. "Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioan kontabilizatutako pasibo finantzarioak" gisa sailkatzen dira baloratzeko.

- Pasibo finantzarioak: hala badagokio, deribatuz bestelako pasiboak jasotzen dira, "Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioan kontabilizatutako pasibo finantzarioak" gisa sailkatu direnak, hala nola maileguan hartutako baloreak saltzeagatik pasiboak.
- Hartzekodunak: hala badagokio, ordaindu beharreko kontuak eta zordunketak jasotzen dira, beste epigrafe batzuetan sailkatu behar ez direnak, administrazio publikoekiko kontuak eta kudeaketa- eta gordailu-komisiogatik ordaintzeko dauden zenbatekoak barne. Balorazio-ondorioetarako, "Ordaindu beharreko zordunketak eta partidak" gisa sailkatzen dira.

b) Aktibo eta pasibo finantzarioak kontabilizatzea eta baloratzea

i. Aktibo finantzarioak kontabilizatzea eta baloratzea

Balorazio-ondorioetarako, "Kobratzeko partidak" gisa sailkatutako aktibo finantzarioak eta "Diruzaintza" epigrafean sailkatutako aktiboak, hasieran, "arrazoizko balioan" baloratzen dira (kontrako ebidentziarik ez badago, transakzio- prezioa izango da), eragiketari zuzenean esleitu dakizkiokeen transakzio-kostuak integratuz. Ondoren, aktiboak beren kostu amortizatuagatik baloratzen dira, eta galdu-irabazien kontuko "Diru-sarrera finantzarioak" epigrafean sortutako interesak interes-tasa efektiboaren bidez kontabilizatzen dira. Halere, diru-fluxuak ez eguneratzeagatik ondorioa ez bada nabarmena, urte batetik beherako epean jasotzea espero diren zenbatekoak dituzten partidak balio nominalaren arabera baloratzen dira.

Balorazio-ondorioetarako, "Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioan kontabilizatutako aktibo finantzarioak" gisa sailkatutako aktibo finantzarioak, hasieran, "arrazoizko balioan" baloratzen dira (kontrako ebidentziarik ez badago, transakzio- prezioa izango da), eragiketari zuzenean esleitu dakizkiokeen transakzio-kostuak barne, eta kanpoan uzten dira, hala dagokionean, ordainketa atzeratzeagatik interesak. Azken likidaziotik sortutako interes esplizituak balantzeko aktiboko epigrafe honetan erregistratzen dira: "Inbertsio finantzarioen zorroa – Inbertsio-zorroaren interesak". Ondoren, aktiboak beren arrazoizko balioan baloratzen dira, horiek besterentzean egin daitezkeen transakzio-kostuak kendu gabe. Arrazoizko balioan egiten diren aldaketak galdu-irabazien kontuan jasotzen dira (ikusi 3.g.iii atala).

Kasu guztietan, aktibo finantzarioen arrazoizko balioa zehazteko, hau hartuko da kontuan:

- Kotizatutako ondare-tresnak: horien arrazoizko balioa erreferentzia egunaren, halakorik bada, edo egun horren aurreko egun balioduneko itxierako kanbio ofiziala aplikatuta lortzen den merkatu-balioa da edo ponderatutako batezbesteko kanbioa itxierako prezio ofizialik ez balego, merkaturik adierazgarriena erabiliz negozio-bolumenari dagokionez.

- Kotizaziorako oraindik onartu gabe dauden baloreak: arrazoizko balioa kalkulatzeko da, aurreko jaulkipenetako erakunde beraren antzeko baloreen kotizazioetatik lortzen diren aldaketekin, kontuan hartuta, besteak beste, eskubide ekonomikoetan dauden diferentziak.

- Zorraren kotizatutako balore adierazgarriak: horien arrazoizko balioa da merkatu aktibo bateko kotizazio-prezioa, betiere hori era irmoan lortzen bada. Kotizazio-prezio bat eskura ez dagoenean, arrazoizko balioa transakzio-prezio berrienarekin lotzen da, betiere ez bada izan aldaketa esanguratsurik baldintza ekonomikoetan transakzio-unetik. Kasu honetan, baldintza berriak adieraziko dira, erreferentzia gisa erabiliz antzeko tresnen gaur egungo prezioak edo interes-tasak eta arrisku-primak. Merkatu aktiborik ez badago, balorazio-teknikak aplikatuko dira (bitartekariak, jaulkitzaileak edo informazio-zabaltzaileak emandako prezioak, eskura dauden merkatuetako transakzio egin berriak, funtsean berdina den beste tresna baten gaur egungo uneko arrazoizko balioa, fluxuen deskontu-ereduak eta opzioen balorazioa, hala dagokionean), baldin eta, oro har, onartzen badira eta ahal den heinean merkatuko datu behagarriak erabiltzen badituzte (bereziki, jaulkitzailearen interes-tasen eta kreditu-arriskuaren egoera).

- Zorraren kotizatu gabeko balore adierazgarriak: horien arrazoizko balioa da inbertsioaren barne-errendimendua eta unean-unean indarrean dauden zor publikoaren merkatuko interes-tasak berdintzen dituen prezioa, prima bat edo marjina zehatz bat gehituta baloreak eskuratzen diren unean.

- Kotizatu gabeko ondare-tresnak: horien arrazoizko balioa kalkulatzeko da erreferentzia gisa hartuta erakunde partaidetuaren kontabilitate-ondare doituako inbertsio horiei dagokien kontabilitate-balio teorikoa, zergarik gabeko gainbalio edo minusbalio tazituen zenbatekoan zuzentzen dena, baldin eta eskuratze-unean identifikatzen eta kalkulatzeko badira, eta balorazioaren unean badiraute.

- Gordailuak kreditu-erakundeetan eta aldi baterako aktiboen eskuratzeak: horien arrazoizko balioa kalkulatzeko da, oro har, inbertsioaren barne-errendimendua eta unean-unean indarrean dauden merkatuko interes-tasak berdintzen dituen prezioaren arabera, alde batera utzi gabe beste kontsiderazio batzuk, esaterako, erakundearen aurrez ezeztatzeko baldintzak edo kreditu-arriskuaren baldintzak.

- Akzioak edo partaidetzak inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetan eta kapital-arriskuko erakundeetan: horien arrazoizko balioa erreferentzia-eguneko likidazio-balioa da. Halakorik ez badago, eskura dagoen azken likidazio-balioa erabiliko da. Merkatu batean negoziatorako edo negoziatorako sistema aldeaniztun batean onartuta badaude, erreferentzia-eguneko kotizazio-balioarekin baloratuko dira, baldin eta adierazgarria bada. Inbertsio libreko IKEetan, inbertsio libreko IKEen IKEetan eta antzeko atzerriko IKEetan inbertsioak egiteko, 1082/2012 Errege Dekretuko 73. eta 74. artikuluen arabera, hala dagokionean, likidazio-balio zenbatetsiak erabiliko dira.

- Tresna finantzario deribatuak: merkatu arautuetan negoziatuta badaude, beren arrazoizko balioa erreferentzia-eguneko itxierako kanbio ofiziala aplikatuta lortzen dena da. Merkatua ez bada behar bezain likidoa edo merkatu arautuetako edo negoziatorako sistema aldeaniztunetako negoziatu gabeko tresna deribatuak badira, balorazio-metodo edo -eredu egokiak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren abenduaren 21eko 6/2010 Zirkularrean jasotakoaren arabera onartutakoak aplikatuta baloratuko dira.

ii. Pasibo finantzarioak kontabilizatzea eta baloratzea

Balorazio-ondorioetarako, "Ordaindu beharreko zordunketak eta partidak" gisa sailkatutako pasibo finantzarioak, hasieran, "arrazoizko balioan" baloratzen dira (kontrako ebidentziarik ez badago, transakzioko prezioa izango da), eragiketari zuzenean esleitu dakizkiokeen transakzio-kostuak integratuz. Ondoren, pasiboak beren kostu-amortizatuaz baloratzen dira, eta galdu-irabazien kontuko "Gastu finantzarioak" epigrafean sortutako interesak interes-tasa efektiboaren bidez kontabilizatzen dira. Halere, diru-fluxuak ez eguneratzeagatik ondorioa ez bada nabarmena, urte batetik beherako epean ordaintzea espero diren zenbatekoak dituzten partidak balio nominalaren arabera baloratzen dira.

Balorazio-ondorioetarako, "Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioan kontabilizatutako pasibo finantzarioak" gisa sailkatutako pasibo finantzarioak, hasieran, "arrazoizko balioan" baloratzen dira (kontrako ebidentziarik ez badago, transakzioko prezioa izango da), eragiketari zuzenean esleitu dakizkiokeen transakzio-kostuak barne. Ondoren, pasiboak beren arrazoizko balioan baloratzen dira, horien bajaran egin daitezkeen transakzio-kostuak kendu gabe. Arrazoizko balioan egiten diren aldaketak galdu-irabazien kontuan jasotzen dira (ikus 3.g.iii atala).

Bereziki, maileguan jasotako baloreak saltzeagatik finantzaketari eta aldi baterako eskuratutako aktiboak edo garantia gisa emandako aktiboak irmoki saltzeagatik sortutako pasiboei dagokionez, berrerosi beharreko aktiboen arrazoizko balioa hartuko da kontuan, mailegua itzultzeko edo aldi baterako eskuratutako edo garantia gisa emandako aktiboak itzultzeko.

c) Aktibo eta pasibo finantzarioen balantzearen baja

Aktibo finantzarioen transferentzien kontabilitate-tratamendua baldintzatu egiten du eskualdatzen diren aktiboei lotutako arrisku eta mozkinak hirugarrenei eskualdatzeko moduak.

1. Arriskuak eta mozkinak funtsezko eran hirugarrenei eskualdatzen bazaizkie –baldintzarik gabeko salmenten kasua (ohiko kasua dira) edo berrerosteko datan duen arrazoizko balioarekin berrerosteko ituna duten salmentak–, eskualdatutako aktibo finantzarioari baja emango zaio balantzean. Esleitu daitezkeen transakzio-kostuen jasotako kontraprestazio garbiaren (kontuan hartuta lortutako edozein aktibo berri ken onartutako pasibo oro) eta aktibo finantzarioak liburuetan duen balioaren arteko diferentziak zehaztuko du aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera.

Baja emango zaie inbertsioaren ondoren narriadura nabarmen eta berreskuraezin bat duten aktiboei galdu-irabazien kontura.

2. Transferitutako aktibo finantzarioari lotutako arriskuak eta mozkinak atxikitzen badira – prezio finko baten truke edo salmenta-prezioa gehi interes baten truke berrerosteko ituna duten aktibo finantzarioen salmenten kasua, mailegu-hartzaileak aktibo berdinak edo antzeko aktiboak itzuli behar dituen baloreen mailegu-kontratuen kasua edo antzeko beste kasu batzuk–, eskualdatutako aktibo finantzarioari ez zaio baja emango balantzean, eta transferentziaren aurretik erabilitako irizpide berdinekin baloratuko da. Aitzitik, atxikitako pasibo finantzario bat kontabilizatuko da kontabilitatean, jasotako kontraprestazioaren zenbateko berarekin, eta gero bere kostu amortizatuan baloratuko da.

Halaber, ez zaie baxarik emango garrantia finantzarioaren akordio-esparruan lagatako aktibo finantzarioei, salbu eta ez badira betetzen kontratuko baldintzak eta garrantian dauden aktiboak berreskuratzeko eskubidea galtzen bada, kasu horretan baxa emango zaie. Garrantian utzitako edo lagatako aktiboaren balioa kontabilizatu egingo da, hala dagokionean, "IKEek garrantia gisa jasotako baloreak" edo "IKEek garrantia gisa emandako baloreak" epigrafeetan, hurrenez hurren, balantzeko oroipen-kontuetan.

3. Eskualdatutako aktibo finantzarioari lotutako arriskuak eta mozkinak eskualdatzen eta atxikitzen ez badira, baxa emango zaio aktibo finantzarioaren kontrola atxikitzen ez bada.

Aurrekoa kontuan hartuta, aktibo finantzarioei balantzean baxa ematen zaie soilik sortzen dituzten diru-fluxuak iraungi direnean edo inplizituki dituzten arriskuak eta mozkinak hirugarrenei eskualdatu zaizkienean. Antzera, pasibo finantzarioei balantzean baxa ematen zaie soilik sortzen dituzten betebeharrak iraungi direnean edo eskuratzen direnean.

d) Eragiketarako kontabilizazioa

i. Baloreen salerosketa eskudirutan

Deribatuekin eta ondare-tresnekin eragiketarako daudenean, kontratazio-egunean kontabilizatzen dira; zorraren balore adierazgarrien eragiketarako eta dibisa-merkatuko eragiketarako, berriz, likidazio-egunean kontabilizatzen dira. Erosketak, beren izaeraren arabera, balantzeko aktiboko barneko edo kanpoko "Inbertsio finantzarioen zorroa" epigrafean zorduntzen dira eta salmenta-eragiketaren emaitza galdu-irabazien kontuko "Narriadura eta emaitzak tresna finantzarioen besterentzeengatik – Barneko (edo kanpoko) zorroaren eragiketengatik emaitzak" epigrafean erregistratzen da.

Halere, inbertsio kolektiboko erakundeen salerosketaren kasuan, exekuzio-eguntzat jotzen da eragiketa baieztatzen den eguna, nahiz eta ez ezagutu esleitu beharreko partaidetzen edo akzioen kopurua. Eragiketa ez da baloratuko horiek esleitzen ez diren arte. Exekuzio-eguna baino lehen entregatutako zenbatekoak, hala dagokionean, balantzeko "Zordunak" epigrafean kontabilizatzen dira.

ii. Eperako baloreen salerosketa

Eperako baloreen salerosketarako daudenean, kontratazio-unean erregistratzen dira eta posizioaren itxiera-unera arte edo kontratua iraungi arte oroipen-kontuetako "Deribatuen eragiketa luzeengatik konpromisoak" edo "Konpromisoak deribatuen eragiketa laburrengatik" epigrafeetan, beren izaeraren arabera eta konprometitutako zenbateko nominalaren arabera.

"Narriadura eta emaitza tresna finantzarioen besterentzeengatik – Deribatuekin egindako eragiketengatik emaitzak" edo "Tresna finantzarioen arrazoizko balioaren aldakuntza – Deribatuekin egindako eragiketengatik" epigrafeetan, kontuan hartuta ekitaldian likidatu diren ala ez balio-aldaketak, kontratu hauen arrazoizko balioan dauden aldaketen ondorioz lortzen diren diferentziak erregistratzen dira. Kontu hauen kontrapartida barneko edo kanpoko zorroaren eta aktiboaren edo pasiboaren "Deribatuak" epigrafean erregistratzen da, balantzeko saldoaren arabera, likidazio-egunera arte.

iii. Aktiboak aldi baterako eskuratzea

Aktiboan aldi baterako eskuratzeak daudenean edo osterako lagatzeko ituna duten eskuratzeak (aldi bereko eragiketak) daudenean, balantzeko barneko edo kanpoko zorroko "Zorraren balore adierazgarriak" epigrafean erregistratzen dira, alde batera utzita erreferentzia egiten dien azpiko tresnak.

Aktiboan aldi baterako eskuratzeetan sortzen diren arrazoizko balioaren diferentziak galdu-irabazien kontuan ezartzen dira, hala dagokionean, "Tresna finantzarioen arrazoizko balioaren aldakuntza – Barneko (edo kanpoko) zorroaren eragiketengatik".

iv. Gerokoen, opzioen eta warrant-en eta beste deribatu batzuen kontratuak

Gerokoen, opzioen eta/edo warrant-en kontratu-eragiketak daudenean, kontratazio-unean erregistratzen dira eta posizioaren itxiera-unera arte edo kontratua iraungi arte oroipen-kontuetako "Deribatuen eragiketa luzeengatik konpromisoak" edo "Konpromisoak deribatuen eragiketa laburrengatik" epigrafeetan, beren izaeraren arabera eta konprometitutako zenbateko nominalaren arabera.

Ekitaldirako ordaindutako (kobratutako) opzioen eta warrant-en primak beren arrazoizko balioan balantzeko aktiboaren (edo pasiboaren) barneko edo kanpoko zorroaren "Deribatuak" epigrafeetan erregistratzen dira, eragiketaren exekuzio-datan.

Balantzearen aktiboaren "Zordunak" epigrafean, dagokien merkatuetan garantia gisa gordailututako funtsak erregistratzen dira, gainera, merkatu horietan eragiketak egin ahal izateko direnak.

"Narriadura eta emaitza tresna finantzarioen besterentzeengatik – Deribatuekin egindako eragiketengatik emaitzak" edo "Tresna finantzarioen arrazoizko balioaren aldakuntza – Deribatuekin egindako eragiketengatik" epigrafeetan, eragiketa-likidazioa egiten den ala ez kontuan hartuta, kontratu hauen arrazoizko balioan dauden aldaketen ondorioz lortzen diren diferentziak erregistratzen dira. Kontu hauen kontrapartida balantzeko barneko edo kanpoko zorroaren eta aktiboaren edo pasiboaren "Deribatuak" epigrafean erregistratzen da, saldoaren arabera, likidazio-egunera arte.

Gerokoen kontratuan eguneroko likidazio bat dagoen kasuetan, dagozkien diferentziak galdu-irabazien kontuko "Narriadura eta emaitza tresna finantzarioen besterentzeengatik – Deribatuekin egindako eragiketengatik emaitzak" kontuan kontabilizatuko dira.

Baloreei buruzko eragiketen kasuan, opzioa gauzatzen bada, eskuratutako edo erositako azpiko aktiboaren hasierako edo ondorengo balorazioan sartzen da bere balioa, eta kanpoan gelditzen dira diferentziengatik likidatzen diren eragiketak.

v. Funtsari emandako garantiak

Funtsari garantian emandako baloreak eskudirukoaz bestelakoak direnean, horien arrazoizko balioa oroipen-kontuetako "IKEek garantia gisa jasotako baloreak" epigrafean erregistratzen da. Garantian emandako baloreak saltzen direnean, pasibo finantzario bat kontabilizatzen da, balore horiek itzultzeko betebeharraren

arrazoizko balioarekin. Garantian jasotako eskudiru bat dagoenean, balantzeko "Diruzaintza" epigrafean erregistratzen da.

e) Periodifikatzeak (aktiboa eta pasiboa)

Halakorik badago, aldez aurretik likidatutako gastu eta sarrerei dagozkie, eta hurrengo ekitaldian sortuko dira. Ez dira sartzen zorrotik datozen interesak, balantzearen "Inbertsio finantzarioen zorroa – Inbertsio-zorroaren interesak" epigrafean jasotzen baitira.

f) Ondare propioaren tresnak

Funtsaren ondare propioaren tresnak bere ondarea zatitzen duten partaidetzak dira. Balantzearen "Partaideei edo akziodunei esleitutako ondarea – Partaideei edo akziodunei esleitutako funts ordaingarriak – Partaideak" epigrafean erregistratzen dira.

Funtsaren partaidetzak, harpidetza- eta errenboltso-ondorioetarako, eskaera-eguneko likidazio-balioaren arabera baloratzen dira. Likidazio-balio hori Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren azaroaren 26ko 6/2008 Zirkularrean ezarritako irizpideen arabera kalkulatu da. Harpidetza eta errenboltso horiei dagozkien zenbatekoak, hurrenez hurren, ordaintzen eta kargatzen dira balantzearen "Partaideei edo akziodunei esleitutako ondarea – Partaideei edo akziodunei esleitutako funts ordaingarriak – Partaideak" epigrafean.

Funtsaren ekitaldiko emaitza mozkina edo galera izan, eta dibidenduetan banatuko ez bada (mozkinak daudenean), balantzeko "Partaideei edo akziodunei esleitutako ondarea – Partaideei edo akziodunei esleitutako funts ordaingarriak – Partaideak" epigrafeko saldoari egozten zaio.

g) Diru-sarrerak eta gastuak kontabilizatzea

Jarraian, Funtsak diru-sarrerak eta gastuak kontabilizatzeko erabilitako irizpide nabarmenenak laburbildu dira:

i. Diru-sarrera interes eta dibidenduengatik

Erosteke unearen ondoren sortutako aktibo finantzarioen interesak, halakorik balego, kontabilitatean kontabilizatzen dira bere sortzapen-aldiaren arabera, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz, kobrantzaren unean erregistratzen diren inbertsio berankor, zalantzazko edo auzitan daudenei dagozkien interesak izan ezik. Aktibo finantzarioen zorrotik datozen interesen periodifikatzea balantzeko aktiboko epigrafe honetan erregistratzen da: "Inbertsio finantzarioen zorroa – Inbertsio-zorroaren interesak". Kontu horren kontrapartida galdu-irabazien kontuko "Sarrera finantzarioak" epigrafean erregistratzen da.

Beste sozietate batzuetako dibidenduak jasotzen direnean, sarrera gisa kontabilizatzen dira, galdu-irabazien kontuko "Sarrera finantzarioak" epigrafean, Funtsak dibidendu horiek kobratzeko eskubidea sortzen den unean.

ii. Komisioak eta pareko kontzeptuak

Harpidetzen eta errenboltsoen komisioak inbertitzaileei aplikatzeagatik Funtsaren alde sortutako diru-sarrerak, hala dagokionean, galdu-irabazien kontuko "Deskontu-komisioak harpidetzengatik eta/edo errenboltsoenengatik" epigrafean erregistratzen dira.

Zuzenean edo zeharka, lehen jasandako osterak lagatuko komisioen ondorioz, Funtsak jasotzen dituen diru-sarrerak, halakorik bada, galdu-irabazien kontuko epigrafe honetan erregistratu dira: "IKEei osterak lagatuko komisioak"

Kudeaketa-komisioak, gordailu-komisioak zein Funtsaren bilakaerarako beharrezkoak diren bestelako kudeaketa-gastuak, galdu-irabazien kontuko "Ustiapeneko bestelako gastuak" epigrafean erregistratzen dira, bakoitzaren izaera kontuan hartuta.

Deribatuekin egindako eragiketei zuzenean esleitu daitezkeen kostuak, esaterako bitartekariari ordaindutako artesariak eta komisioak, hala dagokionean, galdu-irabazien kontuko "Gastu finantzarioak" epigrafean erregistratzen dira.

iii. Arrazoizko balioaren aldakuntza tresna finantzarioetan

Aktibo eta pasibo finantzarioen arrazoizko balioaren aldakuntzetatik eratorritako mozkina edo galera, eginda edo egin gabe, Funtsaren galdu-irabazien kontuko "Narriadura eta emaitzak tresna finantzarioen besterentzeengatik" eta "Arrazoizko balioaren aldakuntza tresna finantzarioetan" epigrafeetan erregistratzen da dagokionaren arabera (ikusi 3.b.i, 3.b.ii eta 3.i atalak).

iv. Diru-sarrera eta gastu ez-finantzarioak

Sortzapen-irizpidearen arabera kontabilizatzen dira.

h) Mozkinen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zerga galdu-irabazien kontuan kontabilizatu beharreko gastutzat jotzen da, eta zerga korrontearen gastuak edo sarrerak eta zerga geroratuaren gastuak edo sarrerak osatzen dute.

Zerga korrontea mozkinen gaineko zergaren likidazio fiskalen ondorioz Funtsak ordaintzen duen zenbatekoarekin lotzen da; hala badagokio, kenkariak eta galera fiskalak konpentsatzeko eskubidea hartuko dira kontuan, eta ez atxikipenak eta konturako ordainketak.

Geroratutako zergaren gastua edo sarrera, halakorik balego, geroratutako zergaren pasiboan edo aktiboan kontabilizazioarekin eta ezeztapenarekin lotzen da, zeinak sortzen diren ondare-elementuak kontabilitateari eta zergari dagokionez balorazio desberdinak eragindako aldi baterako diferentzietatik. Aldi baterako zerga-diferentziek geroratutako zergaren pasiboak ekar ditzakete; aldiz, aldi baterako diferentzia kengarriek eta fiskalki aplikatzeko gelditzen diren kenkarien kredituek eta abantaila fiskalek geroratutako zerga aktiboak ekartzen dituzte.

Galera fiskalengatik ondorengo ekitaldietan konpentsatu beharreko eskubideak badaude, ez dute aukera ematen inolako kasutan zerga geroratuagatik aktibo bat kontabilizatzeko eta zergagatiko gastua konpentsatuta kontabilizatuko dira soilik, Funtsak emaitza positiboak sortzen dituenean. Konpentsa daitezkeen galera fiskalak, hala dagokionean, Funtsaren kontuen "Konpentsatu beharreko galera fiskalak" kontuan erregistratzen dira.

Geroratuagatik zergagatiko pasiboak daudenean beti kontabilizatzen dira. Pasibo horiek kuantifikatzen dira, horien berrikuspenaren unean esperotako karga-tasak kontuan hartuta. Zerga-arauetan aldaketak badaude, dagokien balorazio-doikuntzak egingo dira.

i) Transakzioak atzerriko monetan

Funtsaren oinarritzko moneta euroa da. Ondorioz, euroaz bestelako monetan izendatutako saldo eta transakzio guztiak "atzerriko monetan" izendatuko izaten dira.

Atzerriko monetan izendatutako transakzioak daudenean, eurora bihurtzen dira transakzio-eguneko eskurako kanbioaren interes-tasa erabilita. Eskurako kanbioaren interes-tasa izango da erreferentziako merkatuak egun horretan duen adierazgarriena edo, horrelakorik ez bada, data horren aurreko azken egun baliaduneko.

Atzerri-monetan izendatutako saldoak moneta funtzionalera bihurtzean sortzen diren kanbio-diferentziak, diruzaintza, zordunketa eta kredituak diren moneta-partiden kasuan, zenbateko garbiagatik, galdu-irabazien kontuko "Kanbio-diferentziak" epigrafean erregistratzen dira; tresna finantzarioen zorroa osatzen duten gainerako partida monetarioen eta partida ez-monetarioen kasuan, kanbio-diferentziak galeretatik eta irabazietatik eratorritako irabaziekin batera eramango dira (ikusi 3.g.iii oharra).

j) Eragiketa lotuak

Sozietate Kudeatzaileak 35/2003 Legearen 67. artikuluan eta 1082/2012 Errege Dekretuaren 144. eta 145. artikuluetan eta ondorengo aldaketetan xedatzen diren eragiketa lotuak egiten ditu Funtsaren kontura. Horretarako, Sozietate Kudeatzaileak idatzizko politika bat du interes-gatazken arloan (Sozietate Kudeatzailearen barruan funtzioak independentziaz gauza daitezkeen), baita erregularitasunez eguneratzen den Sozietate Kudeatzaileak edo haren izenean gauzatutako eragiketen eta jardueren erregistro eguneratua ere, baldin eta interes-gatazka sortu bada edo sor badaiteke eragiketa eta jarduera horietan. Gainera, Sozietate Kudeatzaileak barne-prozedura formal bat izan beharko du, ziurtatzeko eragiketa lotuak Funtsaren interes eksklusiboagatik egiten direla eta merkatuko prezio edo baldintza berdinetan edo hobeetan. Indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean erregistratutako aldizkako txostenetan, hala dagokionean, informazio hau jasoko da: egindako eragiketa lotuei buruzkoa, esaterako, batez ere, likidazioagatik eta bitarterikatzagatik komisioak; gordailuzainarekin mantendutako aktiboan aldi baterako gordailuen eta eskuratzeen zenbatekoa; eta Sozietate Kudeatzailearen Taldeak jaulkitako, ezarritako edo ziurtatutako aktiboetan egindako erosketen eta salmenten zenbateko efektiboa.

4. Inbertsio finantzarioen zorroa

2023ko abenduaren 31ko inbertsio finantzarioen zorroaren xehetasunak, kontuan hartu gabe "Gordailuak KEetan", "Deribatuak" eta "Inbertsio-zorroaren interesak" epigrafeetako saldoa, eranskin gisa ezarri dira, eta ohar honen parte da eranskin hori.

2023ko abenduaren 31ko zorraren balore adierazgarrien iraugitze-epeen araberako banakatzea hau da:

Iraungitzea	Euroak
Urte 1etik beherakoa	718.698.028,26
	718.698.028,26

Gainera, 2023ko abenduaren 31n, Funtsak posizio hauek mantentzen zituen konpromiso-kontuetan:

	Euroak
Konpromisoak deribatuen eragiketa luzeengatik	
Eskurako erosketak	59.075.891,21
Guztira	59.075.891,21

2023ko abenduaren 31n, Funtsak konpromiso-kontuetan mantendutako posizio guztiek urte batetik beherako muga-eguna zuten.

Aurreko xehetasuneko "Eskurako erosketak" epigrafeko saldoak kontratazioaren eta eragiketa horien likidazioaren arteko aldiari erositako zorra adierazten duten baloreen eragiketarako konprometitutako nominala jasotzen du.

Era berean, oroipen-kontuetako "Bestelako oroipen-kontuak – Bestelakoak" epigrafeko saldoan, Funtsaren erakunde gordailuzainak gordeta dauzkan tituluen balio nominala jaso da, informazio moduan.

Gordailututa egon daitezkeen Funtsaren zorroa osatzen duten baloreak eta aktiboak Cebank. S.A.n daude (CECA Taldea) edo gordailutze-tramitean erakunde horretan (ikus 1. eta 7. oharra). Funtseko balore higigarriak eta gainerako aktibo finantzarioak ezin dira pignoratu, ez eta inolako garantia gisa eratu ere, salbu Funtsak bigarren mailako deribatuen merkatu ofizialetan egiten dituen eragiketetan garantia gisa balio izateko, eta funtzio hau gauzatzeko legez gaitutako erakundearen zainzapean egon behar dute.

Arriskuaren kudeaketa:

Funtsaren Sozietate Kudeatzaileak egiten duen arrisku finantzarioen kudeaketaren helburua da, beharrezko mekanismoak ezartzea interes-tasen eta kanbio-tasen aldaketekiko esposizioa kontrolatzeko, baita kreditu- eta likidezia-arriskuekiko esposizioa kontrolatzeko ere. Ildo horretan, 1082/2012 Errege Dekretuak, uztailearen

13koak, esposizio hori mugatzen duten koefiziente arauemaile batzuk ezartzen ditu, zeinaren kontrola Sozietate Kudeatzaileak egiten duen. Jarraian, Funtsaren koefiziente arauemaile nagusiak adierazten dira:

- Inbertsiorako mugak inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetan:

48.1.c) eta d) artikuluan aipatutako IKE batek jaulkitako akzioetako edo partaidetzetako inbertsioak ezingo du gainditu ondarearen % 20a, salbu eta IKEen inbertsio-politika funts bakarrean inbertitzea bada. Era berean, 1082/2012 Errege Dekretuko, uztailaren 13ko 48.1.d) artikuluan aipatutako IKEetako guztizko inbertsioak ezingo du gainditu Funtsaren ondarearen % 30a.

- Inbertsiorako muga orokorra kotizatutako baloreetan:

Jaulkitzaile berdinak jaulkitako aktibo edo tresna finantzarioetako inbertsioak ezingo du gainditu Funtsaren ondarearen % 5a. Muga hori % 10era igo daiteke, betiere % 5a gainditzen duen jaulkitzaileetako inbertsioak ez badu gainditzen Funtsaren ondarearen % 40a. Halere, Funtsak bere ondare guztia inbertitu dezake Europar Batasuneko estatu kide batek, autonomia-erkidego batek, toki-erakunde batek, Espainia kide den nazioarteko erakunde batek edo beste edozein estatuk jaulkitako edo abalaturako baloreetako inbertsioen kasuan, baldin eta ospe handiko arrisku-kalifikazioan espezializatutako agentzia batek emandako kaudimen-kalifikazioa aurkezten badu, Espainiako Erresumarena baino txikiagoa ez dena. % 25era igoko da, baldin eta Europar Batasuneko estatu kide batean egoitza duten kreditu-erakundeek jaulkitako obligazioetan egindako inbertsioak badira, eta haien zenbatekoa bermatuta badago jaulkitzeko konpromisoak behar bezala estaltzen dituzten aktiboekin, eta modu pribilegiatuan eragiten badiete printzipalaren errenboltoari eta interesen ordainketari, jaulkitzailearen konkurtso-egoeraren kasuan. % 5eko muga gainditzen duten mota horretako obligazioetako inbertsioen guztizkoak ezingo du Funtsaren ondarearen % 80a gainditu.

Ondorio horietarako, talde ekonomiko bateko erakundeak jaulkitzaile bakartzat joko dira.

- Inbertsiorako muga orokorra deribatuetan:

Tresna finantzario deribatuei lotutako merkatu-arriskuarekiko guztizko esposizioak ezingo du gainditu Funtsaren ondare garbia. Arriskuarekiko guztizko esposiziotzat joko da gaur egungo edo izan daitekeen edozein obligazio, baldin eta tresna finantzario deribatuen erabileraren ondorioa bada.

Funtsak tresna finantzario eratorrietan inbertitu ahal izango du, horien azpiko aktiboa inbertsio libreko IKEen akzioak edo partaidetzak, antzeko atzerriko erakundeak, bigarren mailako negozio-merkatu bat duten lehengaiak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimendutako azpiko beste edozein aktibo badira.

Opzioak erosteagatik ordaindutako primek, bakarka kontratatzen badira edo eragiketa egituratuetan txertatzen badira, ezingo dute gainditu Funtsaren ondarearen % 10a.

OTC deribatuetako kontraparte-arriskuaren esposizioa ondarearen % 5era mugatzen da, oro har, eta ondarearen % 10era, kontraparte muga jakin batzuk dituen kreditu-erakundeak bada.

Produktu deribatuetako jaulkitzaile bakar batekiko posizioak, kreditu-erakundeek jaulkitako obligazioak zeinen zenbatekoa jaulkipenaren konpromisoak behar bezala estaltzen dituzten aktiboek bermatzen duten eta Funtsak erakunde horretan dituen interes eta gordailuen eta printzipalaren errenboltoari modu pribilegiatuan lotuta geratzen diren, ezingo dute Funtsaren ondarearen % 35a gainditu.

Funtsak erakunde horretan dituen produktu deribatuen, aktiboen eta tresna finantzarioen eta gordailuen jaulkitzaile bakarrarekiko posizioek ezingo dute gainditu Funtsaren ondarearen % 20a.

Tresna finantzario deribatuen erabilerari lotutako azpiko aktiboaren merkatu-arriskuarekiko esposizioa kontuan izan beharko da 1082/2012 Errege Dekretuko 50.2, 51.1, 51.4 eta 51.5 artikuluetan adierazitako dibertsifikazio-mugak betetzeko. Ondorio horietarako, kanpoan utziko dira tresna deribatuak zeinen azpikoa burtsa-adierazle bat den edo errenta finkoko adierazle bat den baldin eta betetzen baditu 50.2.d) artikuluan ezarritako baldintzak, interes-tasak, kanbio-tasak, dibisak, adierazle finantzarioak eta hegakortasuna.

Ondorio horietarako, talde ekonomiko bateko erakundeak jaulkitzaile bakartzat joko dira.

- Inbertsiorako mugak kotizatu gabeko baloreetan:

Eskura daitezkeen baloreek ezingo dute izan mugarik eskualdatze librerako.

Debekatuta dago Funtsak inbertitzea bere taldeko edo Sozietate Kudeatzailearen taldeko erakundeek jaulkitako kotizatu gabeko baloreetan. Era berean, ezingo du inbertituta izan bere ondarearen % 2tik gora erakunde berdinak jaulkitako edo abalaturako baloreetan. Era berean, ezingo du inbertituta izan bere ondare inbertituaren % 4tik gora talde berdineko erakundeek jaulkitako edo abalaturako baloreetan.

Inbertitzea baimentzen da, ondarearen % 10eko gehieneko mugarekin, hauetan:

- Edozein merkatu edo negozioazio-sisteman negoziatzeko onartutako errenta finkoko akzio eta aktiboak, 48.1.a) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak edo haien likidezia bermatzen duten beste mekanismo batzuk dituztenak (IKE inbertitzaileak bere akzioen edo partaidetzen errenboltoak artatzen dituen maiztasun berekoak gutxienez), izan zuzenean edo 82. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.
 - 49. artikuluan xedatutakoaren arabera kotizatu gabeko baloreak.
 - Eskualda daitezkeen akzioak eta partaidetzak, 22/2014 Legean, azaroaren 12koan, eta haren ondorengo aldaketetan araututako kapital-arriskuko erakundeenak, baita antzeko atzerriko erakundeenak ere.
- Likidezia-koefizientea:

Funtsak bere ondarearen % 1eko gutxieneko likidezia-koefiziente bat mantendu beharko du, Funtsaren ondarearen eguneroko saldoen hileko batezbestekoaren gain kalkulaturik.

- Betebeharrak hirugarrenetikiko:

Funtsa bere aktiboaren % 10era arteko mugara arte zorpetu ahal izango da diruzaintzako aldi bateko zailtasunak ebazteko, betiere hilabetetik gorako epea gainditzen ez bada, edo ordainketa geroratuko aktiboak eskuratzen badira, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ezarritako baldintzekin. Ez dira kontuan izango, ondorio horietarako, aktibo finantzarioen erosketan hartutako zordunketak, aktiboak kontratatu diren merkatuak eragiketa likidatzeko ezartzen duen epealdiko erosketakoak badira zordunketak.

Aurreko koefiziente legalek Funtsak dituen arrisku hauek arintzen dituzte, eta, nolana ere, Sozietate Kudeatzaileak jarraipen espezifiko egiten die.

Kreditu-arriskua

Kreditu-arriskua da, Funtsak izango lituzkeen galerak baldin eta kontraparte batek ez balitu beteko Funtsarekin ordainketarako dituen kontratu-betebeharrak. Arrisku hori arindu egingo litzateke lehen azaldutako inbertsio-mugekin eta arriskuen kontzentrazioarekin.

Likidezia-arriskua

Funtsak kapitalizazio txikiko baloreetan edo dimentsio txikiko eta kontratazio-bolumen mugatuko merkatuetan inbertituko balu, edo Funtsarena baino likidezia txikiagoko inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetan inbertsioa egingo balitz, inbertsioak likideziarik gabe geldituko lirateke. Horregatik, Funtsaren Sozietate Kudeatzaileak jardueraren likidezia-arriskua kudeatzen du, likidezia-koefizienteak betetzen direla ziurtatzeko eta partaideen errenboltoak bermatzeko. Sozietate Kudeatzaileak, beraz, likidezia kudeatzeko sistema bat du, baita Funtsaren likideziaren arriskuak kontrolatzeko prozedurak ere.

Merkatuko arriskua

Merkatuko arriskua da, merkatuko prezioetako mugimendu kaltegarrien ondorioz inbertsio kolektiboko erakundeek posizioak galtzea. Arrisku-faktore garrantzitsuenak honela taldeka daitezke:

- Interes-tasaren arriskua: errenta finkoko aktiboetan inbertitzeak interes-tasaren arrisku bat dakar. Interes-tasaren fluktuazioa txikia da epe laburreko aktiboetarako, eta handia epe luzeko aktiboetarako.
- Truke-tasaren arriskua: euroaz bestelako dibisetan izendatutako aktiboen inbertsioak arrisku bat du truke-tasen fluktuazioengatik.
- Burtsako akzioen edo adierazleen prezioaren arriskua: ondare-tresnetan inbertituz gero, inbertitzen duen merkatuen hegakortasunak Funtsaren errentagarritasunari eragin diezaioke. Gainera, merkatu emergentzetzat jotzen diren merkatuetan inbertituz gero, nazionalizatzeko arriskuak edo aktiboak desjabetzea edo inbertsioen balioari eragin diezaioketen ezusteko politikoak egon daitezke, are hegakorrago bihurtuz.

Funtsaren Sozietate Kudeatzaileak arriskua kudeatzeko sistemak ditu Funtsaren inbertsio-politikaren arrisku guztiak zehaztu, neurtu, kudeatu eta kontrolatzeko, baita arrisku-profila inbertsio-politikara eta estratergiara egokitzen dela zehazteko sistemak ere.

Jasangarritasun-arriskua

Funtsaren Sozietate Kudeatzaileak kontuan ditu jasangarritasun arriskuak inbertsio-erabaketan. Inbertsioen jasangarritasun arriskua, besteak beste, jaulkitzaile motaren, jarduera-sektorearen edo kokapen geografikoaren arabera izango da. Horrela, jasangarritasun-arrisku handiagoa duten inbertsioek azpiko aktiboen prezioa jaitsi dezakete eta, beraz, Funtsaren likidazio-balioari era negatiboan eragin diezaioke.

Hala ere, Funtsak bere azpiko inbertsioetan egiten dituen inbertsio-erabakiek ez dituzte kontuan hartzen ingurumenaren aldetik jasangarriak diren jarduera ekonomikoetarako Europar Batasunak dituen irizpideak, Funtsaren liburuxkan ezarritakoaren arabera.

Funtsak mantendutako inbertsioen arriskuak liburuxka informatiboan daude azalduta, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera.

Funtsak garantizatu gabeko errentagarritasun-helburu jakin bat lortzera bideratutako kudeaketa gauzatzen du (ikusi 1. oharra).

5. Diruzaintza

2023ko abenduaren 31n, balantzeko epigrafe honen saldoa hau da:

	Euroak
Gordailuzaineko kontuak:	
Cecabank, S.A. (Grupo CECA) - kontuak eurotan	70.039.565,99
Cecabank, S.A. (Grupo CECA) - sortutako interesak eurotan	63.899,08
	70.103.465,07
Diruzaintzako bestelako kontuak:	
Diruzaintzako bestelako kontuak eurotan	98.992,02
Diruzaintzako bestelako kontuak eurotan	1.063,62
	100.055,64
	70.203.520,71

Aurreko "Diruzaintzako bestelako kontuak" epigrafean, Kutxabank taldeko Kutxabank S.A. eta Cajasur S.A. sozietateetako kontu korranteetako saldoak daude: 99 mila euro negatiboko zenbatekoa eta esanguratsua ez den zenbateko bat, hurrenez hurren. Saldo horiek banatzaileen kontuetan egiten diren harpidetzen eta errenboltsoen eragiketetatik eratorzen dira, nahiz eta egunero banatzaileen kontuen eta gordailuzainaren kontuen artean eskudiru-fluxua dagoen saldo horiek minimizatzen.

Funtsaren kontu korrante nagusien saldoak une bakoitzean kontratuan hitzartutakoaren arabera ordaintzen dira.

6. Partaideak

2023ko abenduaren 31n, Funtsaren ondarea formalizatzen duten partaidetzak balio nominalik ez duten baina jabeei ondare horren gaineko jabetza-eskubidea ematen dien ziurtagiri izendunen bidez adierazten dira.

2023ko abenduaren 31n, partaidetza bakoitzaren balioaren kalkulua honela egiten da:

	Euroak
Funtsaren partaideei edo akziodunei esleitutako ondarea ekitaldiaren itxieran	802.186.677,09
Partaidetzaren likidazio-balioa	6,24
Partaidetza-kopurua	128.590.808,88
Partaide-kopurua	17.416

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, inbertsio-funtsen partaideen gutxieneko kopuruak ez du izan behar 100etik beherakoa. Kasu horretan, urte bateko epea izango dute partaideen gutxieneko kopurua berriz eratzeko era iraunkorrean.

7. Beste ustiapen-gastu batzuk

1. oharrean adierazten denaren arabera, Funtsa kudeatzeko eta administratzeko ardura Sozietate Kudeatzaileak du. Zerbitzu honengatik, 2023ko ekitaldietan, Funtsak urteko % 0,15eko komisio bat sortu du, Funtsaren eguneroko ondarearen gain kalkulatu eta hilero ordaintzen dena 2023ko ekainaren 30era arte, hori barne. 2023ko uztailaren 1etik, hori barne, Funtsak urteko % 0,56ko komisio bat sortu du, Funtsaren eguneroko ondarearen gain kalkulatu eta hilero ordaintzen dena.

2023ko ekitaldian, Funtsaren erakunde gordailuzainak (ikusi 1. oharra) urteko % 0,01eko komisio bat jaso du, Funtsaren eguneroko ondarearen gain kalkulatu eta hilero ordaintzen dena 2023ko ekainaren 30era arte, hori barne. 2023ko uztailaren 1etik aurrera, hori barne, erakunde gordailuzainak urteko % 0,04ko komisio bat jaso du, Funtsaren eguneroko ondarearen gain kalkulatu eta hilero ordaintzen dena.

Halakorik bada, Kutxabank Taldeko erakundeek kudeatutako inbertsio kolektiboko erakundeetan inbertitutako zorroaren gain kudeaketa- eta gordailu-komisio gisa zuzenean edo zeharka aplikatutako ehunekoak ez ditu gainditzen ezarritako gehieneko legalak. Gainera, Kutxabank Taldekoak ez diren erakundeek kudeatutako inbertsio kolektiboko erakundeetan inbertitutako zorroaren gain jasaten den gehieneko kudeaketa- eta gordailu-komisioak ez ditu gainditzen bere liburuxkan horretarako ezarritako mugak.

Bi kontzeptuengatik ordaindu gabe dauden zenbatekoak, 2023ko abenduaren 31n, balantzearen "Hartzekodunak" epigrafeko saldoan jaso dira.

1082/2012 Errege Dekretuak, uztailaren 13koak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Legea arautzen duenak eta haren ondorengo aldaketek (ikusi 1. oharra), V. Tituluan Inbertsio Kolektiboko Erakundeen erakunde

gordailuzainen gordetzeko, gainbegiratzeko eta administratzeko funtzioak garatzen ditu. 2016ko urriaren 13an jarri zen indarrean Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren ekainaren 29ko 4/2016 Zirkularra. Inbertsio Kolektiboko Erakundeen eta 22/2014 Legeak, azaroaren 12koak, araututako erakundeen gordailuzainen funtzioei buruzkoa da zirkular hori. Zirkular horrek inbertsio kolektiboko erakundeen gordailuzainen araudia osatzen du, dituzten funtzioen eta arduren irismena garatuz, baita funtzio horietan jarduteko dituzten espezifikotasunak eta salbuespenak ere. Funtzio nagusiak hauek dira:

1. Funtsaren diruzaintza-fluxuak behar bezala kontrolatuta daudela bermatzea.
2. Funtsaren aktiboak ez direla bere baimenik gabe erabiltzen bermatzea.
3. Gordailuzainaren baloreen kontua eta hirugarrenena bereiztea; beraz, ezin dira erregistratu kontu berdinean gordailuzainaren eta haren bezeroen posizioak.
4. Tresna finantzario guztiak kontu bereizietan eta Funtsaren izenean irekitakoetan erregistratzen direla bermatzea.
5. Inbertsioaren xedea beste IKE batzuk diren kasuan, gordailuzainaren edo honek berariaz izendatutako azpizaindari baten izenean erregistratutako partaidetzak gordeko dira.
6. Egindako eragiketak merkatu-baldintzetan egin direla egiaztatzea.
7. Araudiak eta Funtsaren liburuxkak ezartzen dituzten koefizienteak, irizpideak eta mugak betetzen direla egiaztatzea.
8. Gainbegiratzea Sozietate Kudeatzaileak erabilitako irizpide, formula eta prozedurak Funtsaren partaidetzen likidazio-balioa kalkulatzeko.
9. Egiaztatzea Sozietate Kudeatzaileak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidali behar dizkion informazioaren eta dokumentazioaren kalitatea eta nahikotasuna, indarrean dagoen araudiaren arabera.
10. Gordetzea Funtsaren ondarea osatzen duten balore higigarriak eta gainerako aktibo finantzarioen balore guztiak, hala zuzenean nola erakunde parte-hartzailearen bidez, kasu guztietan kontserbatuz funtzio hori egitetik eratorriko erantzukizuna.
11. Ziurtatzea eragiketen likidazioa puntual egiten dela, merkatuetako likidazio-arauek ezarritako epean edo aplikatu beharreko likidazio-baldintzetan, baita baloreen erosketa- eta salmenta-eragiketak betetzea ere, eta horiengatik sortutako interesak eta dibidenduak kobratzea.
12. Akzioen dibidenduen eta zirkulazioan dauden partaidetzen mozkinen ordainketak zaintzea, baita jasotako berrinbertsio-aginduak betetzea ere.
13. 1082/2012 Errege Dekretuko, uztailaren 13ko 133. artikulua araberako harpidetzak eta errenboltsoak.

Galdu-irabazien kontuko "Beste ustiapen-gastu batzuk – Bestelakoak" epigrafean jaso da, hala dagokionean, atzerriko tituluetan jatorria duten errendimenduen gaineko atxikipenetatik berreskuragarritzat jo ez den zenbatekoa.

2023ko ekitaldiko galdu-irabazien kontuko "Beste ustiapen-gastu batzuk – Bestelakoak" epigrafean jaso dira Funtsaren urteko kontuen auditoria-zerbitzuen ordainsariak, 2 mila euroko zenbatekoarekin.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdiari buruzko informazioa. Hirugarren xedapen gehigarria. Uztailaren 5eko 15/2010 Legeko «Informazioa emateko betebeharra»:

2023ko abenduaren 31n, Funtsak ez zuen hornitzaileei ordaintzeko zenbateko garrantzitsurik eragiketa komertzialetan. Era berean, 2023ko ekitaldian, Funtsak ez die ordainketa garrantzitsurik egin hornitzaileei eragiketa komertzialetan. Sozietate Kudeatzailearen administratzaileen ustez, hala 2023ko abenduaren 31n eragiketa komertzialetan hornitzaileei ordaindu gabeko zenbatekoek nola 2023ko ekitaldian hornitzaile horiei egindako ordainketek betetzen dituzte edo bete dituzte atzeratzeko muga legalak.

8. Egoera fiskala

Funtsak irekita dauzka agintaritza fiskalek gainbegiratu ahal izateko, eratu zenetik egindako eragiketei dagozkien zerga guztiak (ikusi 1. oharra).

2023ko abenduaren 31n, balantzeko "Zordunak" epigrafean jaso ziren administrazio publikoarekiko saldo zordunak atxikipenen moduan eta/edo mozkinen gaineko zergaren itzuli gabeko beste saldo batzuk, 384 mila eurokoak.

Ez dago diferentzia esanguratsurik ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaizaren eta zerga-oinarriaren artean zerga-oinarri negatiboak konpentsatu aurretik, hala dagokionean. Mozkinen gaineko zerga-ondorioetarako karga-tasa % 1ekoa da 35/2003 Legearen, eta haren ondorengo aldaketen, bosgarren artikuluko 4. apartatuan xedatutako partaide-kopuru minimoa betetzen badu, 11/2013 Foru Arauaren, abenduaren 5ekoaren, Bizkaiko Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergari buruzkoaren hirurogeita hemezortzigarren artikuluko bigarren apartatuko a) letran jasotzen den bezala.

Emaitza positiboak izaten direnean, galdu-irabazien kontuko "Mozkinen gaineko zerga" epigrafean erregistratzen du Funtsak mozkinen gaineko zergaren gastua, galera fiskalen konpentsazioaren efektua kenduta, horrelakorik dagoenean. Ez da mozkinen gaineko diru-sarrerarik sortu Funtsak emaitza negatiboak lortzen dituen kasuan (ikusi 3-h oharra).

11/2013 Foru Arauaren, abenduaren 5ekoaren, sozietateen gaineko zergari buruzkoaren arabera, aurreko ekitaldietako zerga-oinarrien zenbatekoa konpentsatzeko, aurreko zerga-oinarriaren % 50eko muga bat ezartzen du. Muga % 70ekoa izango da Foru Arau honen 13. artikuluan zehaztutako mikroenpresa eta enpresa txikientzat.

Sozietate Kudeatzailearen administratzaileek ez dute espero, Funtsa ikuskatuz gero, pasibo gehigarri garrantzitsurik sortuko denik.

9. Itxieraren ondorengo gertaerak

2023ko abenduaren 28an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira 1180/2023 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, inbertitzaileen kalte-ordain sistemari buruzko abuztuaren 3ko 948/2001 Errege Dekretua eta inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamendua aldatzen dituen (uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Errege Dekretu hori 2024ko ekitaldian sartu da indarrean (Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 egunera). Errege Dekretu horrek, besteak beste, aldaketa hau jasotzen du:

- Kendu egiten da % 1eko likidezia-koefizientearen eskakizuna.

Ekitaldia itxi ondoren, ez da izan aurreko oharretan azaldu ez den gertaera garrantzitsurik.

Eranskina: Inbertsio finantzarioen zorroaren xehetasunak 2023ko abenduaren 31n

KUTXABANK RF HORIZONTE 20, FONDO DE INVERSIÓN

Dibisa	ISIN	Deskribapena	Euroak
EUR	ES0000012H33	BONUA ESPAINIA ESTATUA 0,00 2024-05-31	593.485.069,38
GUZTIRA Barneko zorroa- Zorraren balore adierazgarriak			593.485.069,38
EUR	XS2627311389	ORDAINDUKOA ICO 4,43 2024-05-31	125.212.958,88
GUZTIRA Kanpoko zorroa- Zorraren balore adierazgarriak			125.212.958,88

KUTXABANK RF HORIZONTE 20, FONDO DE INVERSIÓN

Kudeaketa-txostena,
2023ko abenduaren 31n
amaitutako urteko ekitaldiari dagokiona

Funtsaren egoera, negozioen (merkatuen) bilakaera eta aurreikus daitekeen bilakaera

Funtsa 2023ko ekitaldian eratu da. 2023ko ekitaldiaren itxieran, Funtsaren likidazio-balioa 6,24 eurokoa da partaidetzako eta ondarea 802.186.677,09 eurokoa da.

Faktore ekonomiko erabakigarriak

2023. urtearen zati handi bat ziurgabetasunak baldintzatu ditu ingurune makroekonomikoa eta banku zentralen jarduketak. Ildo horretan, inflazioak moderazioaren ildotik jarraitu du; aldiz, lan-merkatuak nolabaiteko sendotasuna mantendu du, bereziki AEBn. Horrek atzeraldi ekonomiko handi bat izatea mugatzen du. Testuinguru horretan, mendebaldeko banku zentraletan (Fed, BoE eta BCE) badirudi amaitu dutela interes-tasen igoera etengabeekin, zeren ez dute beste igoerarik ezarri urteko azken bileretan. Txinako eta Japoniako diru-agintariek, bestalde, mendebaldeko beren kideen korrontearen kontra jardun dute, tasak murriztuz edo, oraingoz, politika hedatzailea mantenduz, hurrenez hurren. Bestalde, urtean zehar, aldi baterako merkatuetan ezegonkortasuna eragin duten hainbat gertaera izan ditugu. Alde batetik, finantza-krisia txiki bat bizi izan dugu, batez ere AEBko eskualde-bankuen segmentuan (porroten bat edo beste tartean) eta Europako Credit Suisse erakundearen. Bestalde, tentsio geopolitikoak areagotu egin dira Ekialde Hurbilean. Aldiz, Txinan, ekonomiak ahulezia-zantzuak erakutsi ditu eta bertako agintariek oraindik ez dute hartu zabalkunde ekonomikorako neurri irmorik.

Finantza-merkatuei dagokienez, 2023an inflazioa moteldu egin da pixkanaka, eta banku zentralen diskurtso murriztaileak errenta aldakorreko merkatuei mesede egin die. Testuinguru horretan, burtsako indize nagusiek igoera handiekin amaitu dute ekitaldia (S&P 500 +% 24,23, Eurostoxx 50 +% 19,19, Ibex 35 +% 22,76, Nikkei 225 +% 28,24, MSCI Emerging +% 7,04).

Errenta finkoari dagokionez, inflazio moderatuak eta banku zentraletan politika monetarioa aldatu izanak BETen igoera orokortua ekarri dute interes-tasen kurba nagusietan, kurba amerikarreko tarte luzean izan ezik, ez baita aldatu. Horrela, AEBn zor publikoaren errentagarritasuna lau itxi da 10 urterako tartean; aldiz, Alemanian, erreferentzia berdina 55 op jaitسي da. Tarte laburrenetan, errentagarritasunen jaitsiera orokorra izan da. Horrela, murrizketak ikusi ditugu AEBn 2 urterako tartean (18 op); aldiz, Alemanian, erreferentzia hori 36 op zuzendu da. Arrisku aktiboei, ordea, ingurune makroekonomikoaren hobekuntzak mesede egin die, zor korporatiboan diferentzialen uzkurdura bat (164 op Xover indizearen kasuan) eta zor emergentean hedapen txikiagoa (30 op) ekarri dituena. Azkenik, dibisei dagokienez, Fedek interes-tasak jaisteko prozesua hasteko espektatibak dolarra ahuldu du euroaren aldean (-% 3,12), baina yenaren aldean bere igoerari eutsi dio (+% 7,50), BoJk diru-politikei eutsi dielako.

2024rako aurreikuspenak

1. Koiuntura ekonomiko globala

2023an hazkunde ekonomikoak moteltze prozesua bizi izan dute, baina 2024an espero dugu ingurune honetako BPGd-en zabalkunde txikiagoek jarraitzea, banku zentralen politika murriztaileen ondorio negatiboen ondorioz. Hala ere, herrialde garatuek eta emergenteek berriz ere bilakaera desberdina izango dutela uste dugu. Lehenengo kasuan, hazkunde aurreikuspenak askoz txikiagoak dira; bigarrenen kasuan, egoera hobea da Indiaren erresilientzia ekonomikoari esker. Oro har, AEBen eta Txinaren hazkundera moteltzea espero dugu, eta euroguneko ekonomia apur bat suspertzea.

	2023	2024	2025
Crecimiento mundial	3,1%	3,1%	3,2%
Economías avanzadas	1,6%	1,5%	1,8%
EEUU	2,5%	2,1%	1,7%
Eurozona	0,5%	0,9%	1,7%
Alemania	-0,3%	0,5%	1,6%
Francia	0,8%	1,0%	1,7%
Italia	0,7%	0,7%	1,1%
España	2,4%	1,5%	2,1%
Reino Unido	0,5%	0,6%	1,6%
Japón	1,9%	0,9%	0,8%
Economías Emergentes	4,1%	4,1%	4,2%
Rusia	3,0%	2,6%	1,1%
China	5,2%	4,6%	4,1%
India	6,7%	6,5%	6,5%
Brasil	3,1%	1,7%	1,9%
México	3,4%	2,7%	1,5%

2. Merkatuen bilakaera

Merkatuentzako egoera orokorra 2024an 2023an baino hobea izango da. Banku zentralak ezarritako diru-murrizketako neurriek hazkunde ekonomikoan izango duten eraginari buruzko zalantzak eta aurreko ekitaldian arrisku-aktiboek izango duten portaera onak errealizazio-potentzial mugatua eskaintzen dute a priori 2024ari begira.

Interes-tasen kurbei dagokienez, horietako tarte guztietan interes-tasen jaitsieren mugimenduan jarraipena izatea espero daiteke. 2024ko hasierako zatian nolabaiteko BETen egonkortasuna izatea baztertu ezin bada ere, ekitaldiaren bigarren erdian errendimenduetan nolabaiteko beheranzko presioa izan beharko genuke, banku zentralak tasak murrizten hasten direnean. Diferentzial subiranoei eta kreditu diferentzialei dagokienez, nolabaiteko uzkurdua ikus dezakegu inflazioak jaisten jarraitzen badu eta hazkundera ez bada erortzen.

Errenta aldakorrak, bestalde, hegazkortasun-gertakari garrantzitsuak izan ditzake egungo ziurgabetasun-fokuak mantentzen badira. 2023ko burtsaren portaera bikainaren ondoren, balorazioek, oro har, doitua eta merkatu-nitxo batzuetan handiak dirudite. Adierazle makroekonomikoen bilakaera eta banku zentralen jarduerak izango dira berriz ere merkatuen bilakaera baldintzatuko duten alderdi nagusiak. Bestalde, datozen hiru hilabeteetako enpresa emaitzek agerian jartzen jarraitu beharko lukete ikusten ari garen nariadura makroekonomikoa. Ildo

horretan, egungo espektatibek beherantz doitzen jarraitzen dute, egungo errealitate ekonomikoaren isla gisa, eta litekeena da kalkuluen lurzorua oraindik lortu ez izana. Beraz, ezin dugu baztertu ezusteko negatiboak izatea, bereziki sektore ziklikoago batzuetan.

Beraz, 2024rako egoerari dagokionez, zalantza handiak daude, aurreko ekitaldian izandakoen antzekoak, bereziki arrisku-aktiboentzat. Inflazioaren bilakaerak eta banku zentralen jarduketak izango dira berriz ere arreta osoaren ardatzak. Ekonomia batzuk atzeraldira eraman ditzakeen narriadura makroekonomiko progresiboa espero dugu, nahiz eta azken datuekin probabilitate txikiagoa hartzen ari den egoera bat izan. Banku zentralen diru-politiken itzulera mugatuko duen inflazio-egoera iraunkorragoak hazkunde-zenbatespenen narriadura nabarmena eragin lezake, eta oso eragin negatiboa izan dezake arrisku-aktiboen balorazioetan.

Funtsak tresna finantzarioak erabiltzea

Duen jarduera kontuan izanda, Funtsak tresna finantzarioak erabiltzen ditu bere helburu soziala lortzeko (ikus Memoriako 4. oharra), eta horretarako doitzen eta egokitzen ditu bere helburuak eta prezio-arriskua, kreditu-arriskua, likidezia-arriskua, jasangarritasun-arriskua eta diru-fluxuen arriskua kudeatzeko politikak, indarrean dagoen araudiak (35/2003 Legea, 1082/2012 Errege Dekretua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ateratako Zirkularrak) ezarritako muga eta koefizienteen eta Funtsaren liburuxkan ezarritako inbertsio-politikaren arabera.

Funtsak bere azpiko inbertsioetan egiten dituen inbertsio-erabakiek ez dituzte kontuan hartzen ingurumenaren aldetik jasangarriak diren jarduera ekonomikoetarako Europar Batasunak dituen irizpideak, Funtsaren liburuxkan ezarritakoaren arabera.

2023ko ekitaldiaren itxiera ondorengo gertaera garrantzitsuak

Ez dago Memorian adierazitakoaz bestelako ezer aipatzeko.

Ikerketa eta garapena

Funtsak ez du jarduerarik garatu ikerketaren eta garapenaren arloan 2023ko maiatzaren 5etik 2023ko abenduaren 31ra bitarte.

Akzio propioak eskuratzea

Ez da aplikagarria.

Hornitzaileei eragiketa komertzialetan ordaintzeko batez besteko epealdiari buruzko informazioa.

Ez dago Memorian adierazitakoaz bestelako ezer aipatzeko (ikusi 7. oharra).